



**LAZKAOKO UDALEAN ZERBITZUEN KOORDINATZAILE PLAZA JABETZAN BETETZEKO
HAUTAPEN PROZESUA.
PRESTAKETA PRAKTIKALDIAREN BALORAZIO BILERA.**

BERTARATUTAKOAK:

Presidenteak: Iñaki Eskisabel Zurututza.

Bokalak: Miren Aldasoro Arozena, Alonso Frances Alustiza eta Izaro Gurrutxaga Auzmendi.

Bere ezin etorria adierazi du Eduardo Para Gómez mahaikideak.

Idazkaria: Miren Larrañaga Iurrita.

Lazkaon, bi mila eta hogeiko urriaren zortzian.

Goizeko hamar eta erdiak direnean Lazkaoko Udalean zerbitzuen koordinatzaile plaza jabetzan betetzeko hautapen prozesua aurrera eramateko Epaimahaia bildu da, Jon Eskisabel Del Bosque hautagaiaren prestaketa praktikaldia amaitu delarik, praktikaldi honen balorazioa egiteko.

1. 2020ko irailaren 15ean amaitu zen Jon Eskisabel Del Bosque hautagaiaren 12 hilabeteko prestaketa praktikaldia.
2. Hautaketa prozesuaren oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera, aipatu epea bete ondoren, departamentuaren arduradunak egindako lanaren balorazio txostena aurkeztu behar dio Epaimahaiari.
3. Miren Aldasoro Arozenak, hautagaiaren departamentuko arduradun bezela, balorazio txostena egin du eta Epaimahai honi aurkeztu dio. Txostenaren ondorioa da hautagaiak prestaketa praktikaldia gainditu egin duela.
4. Epaimahaiko kideek diote ikusi eta entzun dutela balorazioaren arrazonamendua eta bat egiten dutela berarekin.
5. Ondorio bezela, Epaimahaiaren proposamena ondorengo da: gainditutzat ematea Jon Eskisabel Del Bosque hautagaiaren prestaketa praktikaldia.

Behin-behineko proposamen honen aurka alegaziorik aurkeztu ez bada, Epaimahai hau berriro bildu beharrik gabe proposamena behin-betikoa izango da.

Eta bestetik gabe bilera amaitutzat ematen da, goizeko hamaikak direnean, nik, Idazkariak, guztiaren akta jasotzen dudalarik.

Presidentearen
oniritzia,